

Garagardo Azoka jendetsua

Milaka herritarrek probatu dituzte zerbeza eta jaki bereziak Basaundin

Giro bikaina izan da asteburu osoan Basaundin Buruntz-Azpi elkarteak jarri duen garagardo azokan. Ostegunean bertan, azoka ireki eta berehala, herritar eta kanpotar ugari hurbildu ziren jada zerbeza ezberdinak dastatzera eta azokan ohikoak diren mokaduak probatzera. Ostiral, larunbat eta igandeetan bete egin dira Basaundiko plazan jarritako karpak.

Ostegunean arratsaldeko 18:00etan Ostadar Kirol Fundazioko ordezkariak bete zituzten lehen garagardo pitxarrak. Itziar Carrascok, Jose Manuel Loiarte Gorrik eta Joxean Belartietak ordezkatu zuten kirol fundazioa irekiera ekitaldian. Aurretik Buruntz-Azpi Ehiza eta Arrantza elkarteak, Joxe Manuel Aranburuk Ostadarrek herrian egiten duen lana goraipatu eta eskertu zuen, zera adieraziz, sarri agintariek lan hori aitortzen ez baldin badute ere aipagarria dela eta horregatik eman diotela Garagardo Azoka irekitzeko aukera. Beraz herriarengatik

azken urteotan egin duen lan hori omenduz baimena eman zion Itziar Carrascori garagardoa ateratzeko. Ordutik atzo gauerdira arte, milaka litro zerbeza atera dira Garagardo Azokan.

Mota guztietakoak

12 garagardo ezberdin probatzeko aukera eskaini du Buruntz-Azpik: horiak, gorriak, beltzak, gari-garagardoak eta nahi izanez gero alhoholgabekoak, denetarik beraz. Aurten Newcastle Brown Ale izenekoa izan da eskaintza berria. Gainera, edariari laguntzeko denetarik prestatu dute elkarteak jateko ere, ukondoa eta saltxitxa mota ezberdinak patata purearekin, lakoia, txorixo egosia, patata bixiak, txibiak, gazta eta euskal pastela.

Ostiral iluntzean Txalagore taldeko trikitilari, panderojole eta txalapartariak emanaldi bikaina eskaini zuten Garagardo Azokara hurbildu zirenezat.



Txalagore taldeak giro bikaina jarri zuen Garagardo Azokan.



Futxi elkarteak lendarria, Aitor Ederra, kartela egin duenarekin.

Aitor Ederrak irabazi du kartel lehiaketa


Buruntz-Azpi elkarteak, urtero bezala, Garagardo Azoka iragartzeko antolatutako kartel lehiaketan Aitor Ederra Donostiako diseinatzaile grafikoak eraman du 300 euroko saria. Andoni Monje Futxik eman zion ostegun arratsaldean saria irabazleari. Garagardo pitxar bat marraztu du "la octava maravilla" izeneko kartelean. Guztira, 14 lagunek parte hartu dute lehiaketan eta denei lagun batekin afaletzerako joateko aukera eman diete Buruntz-Azpiko antolatzaileek. •



Maiatzaren 21eko Greba deialdia dela eta sindikatuarekin hitz egin dugu / 4-5

KIROLA 2

Areto-futboleko herriko taldeak igoeraren bila; ISU Euskal Liga eta Aldaz H.K. Nazional B maila



Hondakinen kudeaketarekiko hiritarren pertzepezioei buruzko ikerketa / 6

Lasarte-Oria Egañaren kontra Ezetz 5. txapela!



MAIATZAREN 23an, 21:00etan
BERTSO AFARIA ARRIESKALLETAN

Txartelak: 25 euro,
Arrieskalletan eta Jaigun

Menua:

Urdaiazpikoa, bakailaoa, rabilloa,
postrea, kafea eta kopak (libre)

* Afarira joateko ez da Arrieskalletako bazkide izan behar

ANTOLATZAILEAK:



Areto-futboleko taldeak igoeraren bila

■ ISU Leihoak taldeak Euskal Liga du helburu eta Aldaz H.K. taldeak Nazional B maila

Lasarte-Orian areto-futboleko bi taldeak denboraldi amaierara iritsiko dira aurki. ISU Leihoak Gipuzkoako lehenengo mailan dago lehian eta Aldaz H.K. Euskal Ligan. Bi taldeak sailkapeneko lehenengo postuetan mantendu dira denboraldi osoan eta mailaz igotzeko aukerak dituzte. Horregatik, entrenatzaileekin hitz egin dugu denboraldiari buruz jakin eta azken aste hauetako nondik norakoak ezagutzeko.

Oscar Garcia Aldaz H. K.

Aldaz H. K. taldea aurtan igo da Euskal Ligara eta denboraldi bakarrean Nazional B ligara igotzeko aukerak ditu.

“Lehenengo urtea da euskal ligan gaudela, hiru urte egin genituen Gipuzkoako 1. mailan eta hau irabazten. Euskal Ligara igo ginen iaz eta Nazional b mailara igotzea da orain helburua,” aipatu digu Oscarrek.

“Denboraldi ona egin dugu, azken kolpea falta da orain. Pena izango litzateke lehenengo postuan 10 jardunaldi egin eta gero, azkeneko partidaren nazional B mailara iristeko aukera gaitza,” adierazi digu.

Euskal Ligari buruz galdetzerakoan, “maila gehiago espero genuen. Talde gipuzkoarrak ezagutzen genituen, beste urteetan haien aurka jokatu baitugu. Gainera, norgehiagoka berdinduak izan dira talde guztien artean eta horren adierazgarri 1go eta 10. postuaren arteko 12 puntuak dira,” aitortu digu.

Igoera lortu duten taldeei buruz galdetu eta “denboraldian zehar iogee-

ra lortu duten taldeei irabazi diegu jokatutako partidatan eta igotzea merezi dugu,” esan digu eta zera atxiki du “lehenengo asteko partida giltza zen bietako talde batek irabaziz gero, igoera lortuko zuen. Zori txarrez partida galdu genuen eta postu hori Lakunzak eskuratu zuen. Orain, gure eta taularen 4. postuan dagoen Euskal Sofa Inter-UPV taldearen arteko lehia da. Horregatik, denboraldiko azken partida hau, erabakiorra da. Irabazi behar dugu eta guztia, gure esku dago,” aipatu digu.

Partidari begira Aldazeko jokalariek animatuak daudela ere esan digu, “asteburu honetan indarrak atera behar ditugu, partidari ongi aurre egiteko.”

Horretaz gain, Aldazek igoera lortuz gero, Lasarte-Oriak lehenengo aldiz izango luke talde bat Nazional B mailan. Eta aipatu digunez, maila horretako multzoa polita izango litzateke, “talde gehienak gipuzkoarrak dira eta honek erraztasunak emango dizkigu.” •



ISU Leihoak igoera faseko txapelketako finalurrekoa jokatuko du aste honetan.

Eneko Molina ISU Leihoak

ISU Leihoak taldeak Euskal Ligara igotzeko *play-off*etarako sailkatu da dagoeneko. Lehenengo postuetan egon da bigarren bueltan eta horrek igoera faserako txartela eman dio. Tamalez, *play-off*etako irabazlea soilik igoko da Euskal Ligara.

Denboraldiari buruz galdetu diogu Eneko Molinari eta irakurketa positiboa egin digu, nahiz eta lehenengo bueltan taldea ez oso fin ibili.

“Taldeak bi fase desberdin izan dituela esan daiteke, batetik lehenengo buelta kaxkarra egin zuen eta partida dezente galdu genituen, baina etxeok irabazi eta puntuak eskuratu genituen. Bigarren buelta, aldiz, oso ona egin zuen partida gutxi batzuk galduaz,” adierazi digu Enekok.

Baina igoera faserako sailkatu diren taldeek ere bigarren buelta ona egin zutela ere aipatu digu, “horregatik, *play-off*a borrokatua izango dela uste dut.” Eta zera atxiki du, “lehenengo postuan egon den taldea azken partidatan behera egin du, baina beste hirurak denboraldiko partidatan gol

bat gora behera ibili gara. Beraz, interesgarria izango da”

Hala ere, aste honetan denboraldiko azken partida jokatu behar dute, “hurrengo astean dugu finalurreko partida. Hau partida bakarrera jokatuko da eta irabaziz gero, finalean egongo ginateke.”

Taldeak finalera iristeko aukerak dituen ere galdetu diogu. “Ongi ikusten dut taldea eta aukerak ditugula uste dut.”

Finalako arerioari buruz galdetzerakoan, “Azpeitiaren aurka izan daitekeela uste dut. Baina ezin dizut irabaziko dugun edo ez esan. Helburua igoera lortzea da, baina...” aipatu du.

*Play-off*etako partidari begira, “taldea batua dago eta jokalariek oso ongi moldatzen dira partidatan. Guztiak oso animatuak daude eta fisikoki ere ongi ikusten ditut, nahiz eta azken asteetan ahul xamar ibili diren. Hala ere, normala da bi txapelketetan baidabilta buru belarri finalera iritsi nahian,” adierazi digu. •



Lehenengo astean galdu ostean, asteburu honetako partida irabazi behar zuen Aldaz H. K. taldeak.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Kopako ateetan Texas eta Ostadar

- Texas Lasartearra taldeko erregionalek larunbateko partida galdu eta kopatik at daude
- Ostadarreko emakumeen taldeak erronka handia zuen atzo, Eibartarrak taldea

TXINTXARRI

Denboraldi hasieran ongi hasi ziren Koldo Ageitosen mutilak. Baina Texas Lasartearrak taldeko erregionalek azken partidaren galdu zuten igoera fasera igozteko aukera.

Orain kopa dute helburu. "Iaz finalera iritsi ginen eta aurtun kopa lortu behar dugu," adierazi digu erregionaleko entrenatzaileak.

Etxean jokatzeko dute eta kopa txapelketako emaitzak ikusita kopa lortzeko faboritoak direla uste du Koldo Ageitok.

Baina ez dute arerioa ongi ezagutzen eta kanporaketa izatea talde lasarteoriarraren aurka joan daiteke. "Gauza gutxi dakigu Dunboari buruz eta ez dugu jokatzeko ikusi. Gainera, partida bakarreko kanporaketa izanik bi taldeek dugu aukera," onartu du.

"Fisikoki ongi ikusten dut taldea. 23 jokalarik izan ditugu denboraldi osoan eta guztiak erabili ditugu errotazioak erabiliz. Honetaz gain, taktikoki ere fin ibili dira eta honek etxean bi partida galtzea bakarrik ekarri du. Honek, esan bezala, konfiantza ematen dio taldeari eta gure alde jarri dezake partida", dio.

Taldeari begira, "jokalarik guztiak animatuak daude eta taldea egiten jakin dugu. Muti-

lek lortutakoaz harro nago eta kopa merezi dutela uste dut," esan digu.

Eta gainera zera atxiki du, "ezin dugu hutsik egin eta gure alde onena erakutsi behar dugu. Denboraldi osoa partida honetan doa."

Texas kopatik kanpo

Hau guztia, larunbata arratsaldeko partida baino ordu batzuk lehenago esan zigun Koldo Ageitosek.

Izan ere, tamalez, larunbateko kanporaketan Texas Lasartearrak Dunboaren aurka 1 eta 2 galdu baitzuen.

Era honetara, Koldo Ageitosen mutilek ezin izango dute jazkoa errepikatu kopa txapelketatik kanpo geratu baitira.

Ostadarreko emakumeak

Kopako finalaurrekoak asteburu honetan jokatu dituen beste taldea Ostadarreko emakumeen taldea dugu.

Ostirala arratsaldean, entrenamentuan Ibai eta Koldo entrenatzaileekin hitz egiteko aukera izan dugu.

"Zentzu orokorrean denboraldia ona izan da, gure gora-beherak izan ditugu batez ere konprometzearekin. Hala ere, ona izan da. Ondo hasi ginen, beherakada bat izan genuen eta orain bukaeran txukun gabiltza," esan digute.



Texas Lasartearrak taldea kopa txapelketatik kanpo geratu zen larunbateko partidaren 1 eta 2 galdu ostean.

Kopako txapelketari buruz galdetuta, "taldea motibatua goa egon da, aurreko fasean baino gehiago. Jokalariak gurturago aurkitzen dira kopako mailarekin," onartu digute, baita "multzoan bi edo hiru talde kenduta, gurekin lau nahiko talde ahulekin lehiatu gara."

Asteburu honetako finalaurrekoak "partida gogorra izango da. Beste taldea Eibartarrak bere multzoko lehenengoa geratu da, partidarik galdu gabe eta gol gutxi jasota. Parti-

da gogorra izango da. Gainera uste dut haiek kopan ez dutela partidarik etxean galdu edo berdindu," azaldu digute.

Finalaurrekoari begira Ostadarreko emakumeengan konfiantza dutela ere adierazi dute, "aukerak badaude, gauzak ongi egiten baditugu aukerak badauzkagu."

Gainera, "jokalariak animatuak daude. Azken aldian azterketak direla eta, batzuk ezin izan dute etorri. Horregatik, aste honetan motibazio lana

egin dugu entrenatzera etortzeko eta finalaurreko delako."

Finalari buruz galdetu eta "aurrea igandekoa eta gero ikusiko da. Nik uste finalera iristen bagara ondo dagoela. Baina lehenik saiatu behar gara igandeko partidaren gauzak ondo egiten eta irabazten badugu hobeto."

Erredakzioa itxi baino lehen ez dugu partidaren emaitzaren berri izan, beraz, hurrengo zenbakian argitaratuko dugu honen berri. •

Maria Montero junior mailako Euskadiko txapelkun

Aurreko asteburuan, maiatzaren 9 eta 10ean, lan asko izan zuten atletismo saileko herritarrek.

Batetik LOKEko gazteek Euskadiko junior eta junior txapelketan aritu ziren. Oscar Goikoetxearen neska-mutilek, gainera, emaitza onak lortu zituzten, batez ere, Maria Montero eta Irati Larrañagak.

Maria Monterok Euskadiko txapelketa eskuratu zuen 100 metro hesiekin proban eta hirugarren postua eskuratu zuen hesiekin egiten den 400 metroko lasterketan ere.

Irati Larrañaga gaztetxoak ere domina eskuratu zuen, junior altuera proban izan zen eta 1, 47 metroko listoa igarota, zilarrezko domina eraman zuen etxera.

Gipuzkoako txapelketa

Bestetik, eskolarteko Gipuzkoako txapelketako 2. jardunaldia burutu zen Tolosan.



Atletismo sailak, domina uzta biltzen du federatu eta eskolarteko mailan.

Bertan Garaikoetxea-Landaberriko alebinek zilarrezko bi domina eskuratu zituzten eta bi txapelkun orde berri daude herrian, Ane Galardi eta Leire Amiano.

Anek 60 metro hesiekin proban serietako marka hobetu eta 10.49 segundu egin zituen;

Leirek, ordea, jausi hirukoitzean lortu zuen 9 metro eta 58 zentimetrotako marka eginez.

Amaia Andresen neska-mutilek, gainera, atzo Gipuzkoako 3. jardunaldia burutu zuten. Baina erredakzioa itxi baino lehen ezin izan dugu emaitzarik lortu. •

Gipuzkoako taldeko erlojupekoan lehia handia egon zen

Buruntzazpi Hastapen eta Etekin Handiko Txirrindularitza Eskolak maiatzaren 9an Infantil eta alebinen Gipuzkoako taldeko erlojupeko lasterketa antolatu zuen Usturbilen.

Talde ezberdinetako haurrak ilusioz lehiatu ziren eta Gipuzkoako Txirrindularitzak

harrobia duela ederki erakutsi zuten.

Eskertza

Era berean, Bazpi Txirrindularitza Eskolak bere esker ona azaldu nahi die Rural Kutxari, Skodari, Atxega jatetxeari eta Usturbil eta Lasarteko udalei. •



Euskal sindikatuen gehiengoak (ELA, LAB, ESK, STEE-ELIAS, EHNE eta Hiru) datorren ostegunean hilak 21 greba agindua dela luzatu dute. Guztiek bat egiten dute or du har diagnostikoan: Ekonomia krisialdean baldin bada, administrazioek eta enpresariok bidezkoa izan ez diren jokabidearen ondorio izan da, krisialde grebaren bidez adierazi nahi dute ez daudela euren sortu ez duten krisialdi egogera ordaintzeko prest. Gainera, agintari politikoek erabaki guztiaik hain justu egotearen errudin eta erantzute izan direnen mesedetan hartzen ari direla salatu dute. Horretatik eskatzen dute erantzun bati, ez bakarrik lanlekuena, baizik eta gizarte osoarena.

KORRONTZI
getxo

MAIATZAREN 30EAN, LARUNBATA
KORRONTZI POKA TALDEAREN KONZERTUA
20:00TAN USUEBIGO FRONTOIAN.

Mondragón
Elkar

04 txintxarri • 2009-05-18 • 78l. zk.

2009-05-15 • 781 . z k • **tintxarri 05**

UDAL BATZARRA

Aurrekonturik ez urte honetan

Lasarte-Oriako Udal Batzarra ostegunean bildu zen. Bertan alkatetzak 2009ko aurrekontuak ez direla aurkeztuko jakin arazi zuen eta, beraz, 2008ko aurrekontuen luzape-na eskatuko dela.

Hau izan zen alkatetzat PP, adskribatu gabeko zinegotziei eta EAJri emandako erantzuna.

Alkatetzat jakin arazi zenez, aurrekontuak ez datoz bat Foru Aldundiak herriei agindutako dirulaguntzak ez dituelako bete. "Lau zirriborro egin ditugu. Baina Foru Aldundiaren dirua espero genuen horietan, ez digute ezer eman oraingoz eta erreala ez den aurrekontua ez dugu aurkeztuko," adierazi zuen Ana Urchueguia alkatetza.

Gainera, partidak eta mailaguren bat eskatu beharko dela ere aipatu zuen. "Era honetara, hemendik bi urtetara oreka ekonomikoa lortu dezakegu," esan zuen alkatetza.

Hirigintza erabakiak

Batzar berean, Zabaletako plan partziala, Kotxeraseko kontzertazio hitzarmena eta udaletxea berritzeko eta handitzeko lanen esleipena onartu ziren. Azken lan honen esleipena, Guillermo Ibargoyen S. A. enpresaren eskuetan geratu da.

Era berean, gaiari lotuta, Okendo plaza ekainaren 12tik aurrera itxia egongo dela ere jakitera eman zen. •

Hondakinen kudeaketa aztergai

■ Aztiker enpresak udalaren eskaeraz martxoan egin du ikerketa

TXINTXARRI

Kontsumo, Merkataritza eta Sanitateko Departamentuak Artelatz S.Coop. enpresari esleitu zion hondakinen kudeaketari buruz herritarrek duten pertzepzioaren ikerketa.

Martxoan, guztira 470 elkarrizketa egin dira lasarte-riar herritarren artean, ahalik eta erradiografiarik zehatzena lortzeko.

Errepresentagarritasun handiagoa izate aldera, lagin-hautaketa egin da 25 puntutan, kanpo-lana egiteko. Honela, udalerri osoa banatu da zona ezberdinetan: Erdialdea, Sasota, Zumaburu, Goi-kale, Oztaran, Atsobakar, Zabaleta, Basaundi, Oria eta Antxisu.

Inketa anonimoa izan da, eta aurrez aurre egin da pertsona entrebistatuen etxebizitzetan. Galdeketa 35 galderak osatu dute, eta 20-25 minututako iraupena izan dute gutxi gora behera.

Datuak

Behin ikerketa bukatu ondoren, ostegunean kulturetxeko hitzaldi aretoan prentsaurrekoa eskaini zen hondakinen kudeaketarekiko herritarren pertzepzioei buruzko ikerketak eman dituen emaitzak azaltzeko. Bertan Ricardo Ortega Ingurumen Batzordeko Lehendakaria,



Mikel Urruzola, Rikardo Ortega eta Iñaki Iurrebaso, erdian berziklapenerako banatuko dituzten poltsetako batekin.

Artelatz Ingurugiro Zerbitzuko Mikel Urruzola eta Iñaki Iurrebaso soziologoa estudioaren lan arduraduna (Aztiker enpresakoa) aritu ziren.

Emaitzen txostenaren arabera inkestatutako pertsona gehienek (%95,5) azaldu dute etxean sortzen dituzten hondakinen parte bat behintzat bereizten duela. Lasarteoriar gehienek (%80) badakite non utzi behar dituzten beira, papera eta kartoiak, plastikozko ontziak eta abar.

Hala ere inkestak adierazten du informazio maila

baxua dela (%20 baino gutxiago) bideokaseteak eta Cdak, fluoreszenteak, kristalezko edalontziak eta plastikozko jostailuak non bota behar diren jakiteko garaian.

Portzentajea baxua da ere (%20 eta %50 artean) tresna elektriko eta elektroniko txikien, pinturen, disolbatzaileen eta bernizen norako egokia adierazten dutenen artean.

Beste ekintzak

Sentsibilizazioa lantzeko ekimenak burutuko dituzte, hala

nola, informazio karpa eta Eko Center eta Urnietako sailkapen plantara bisita gidatuak.

Informazio Karpak maiatzaren 23an eta ekainaren 5ean Okendon, maiatzaren 27an eta ekainaren 10ean merkaturan eta maiatzaren 30ean K.Nagusia 32an (De Miguel farmazia) jarriko dituzte. Bisitak berriz ekainaren 1ean euskaraz 09:00-11:30 eta ekainaren 16an erdaraz 09:30-12:00. Bisitara joateko izena eman behar da 943 670249 zenbakian. •

Kanpanila eta Peter Pan izan ziren kultur etxean



Maddik eta Kanpanilak Peter Panen itzala dute atzean baina ez dute oraindik ikusi.

Larunbata maiatzaren 16an arratsaldeko 18:00etan Manuel Lekuona kultur etxean haurrak zain zeuden eta irrikaz Peter Pan eta Kanpanila ikusteko. Berandu baino lehen han azaldu ziren oholza gainean, Maddidirekin batera.

Kanpanila eta Peter Panen itzala obra aurkeztu zuten Txalo produkzioaren eskutik.

Antzezlan honekin Maddi izeneko neskato batek Kanpanilarekin duen harremana aurkeztu zuten. Bien artean hazi nahi ez duen umea, hau da Peter Pan bilatzen saiatu ziren eta bide batez hainbat eta hainbat galderei erantzuna ematen.

Bertaratu ziren haurrak oso gustora egon ziren. •

Zoriontasunari buruzko hitzaldiek herritar ugari bildu zituzten

Lehengo astelehenetik ostegunera Manuel Lekuona Kultur etxeko hitzaldi aretoa herritarrez bete zen Danok Kide Guraso elkarteak antolatu zituen *Giza balioak: zoriona lortzeko bide bat* hitzaldi sortari esker.

Balioetan hezi VI. jardunaldi hauetan zoriontasuna izan da gai nagusia. Concepcion Medrano, Javier Elzo, Xabier Andonegi eta Patxi Izagirre izan dira hizlariak eta zoriontasuna ikuspegi ezberdinetatik eskaini dituzte. •



Egunero

Erakusketa

KIRIOAK DANTZAN kamiseten erakusketa. Vanessa Gimeno-ren lanak dira eta batez ere pintura oihalean aurkituko duzue ikusgai dauden lanen artean. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, egun osoan zehar.



Asteartea, 19

Hitzaldia

AMAGANDIK EDOSKITZEA, JANARIA BAINO ASKOZ GEHIAGO gaitzat hartuta hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok. Manuel Lekuona Kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ

Diaporama

KOLONBIAN ASKAPENAREKIN diaporama eskainiko du Haritz Alberdik. Xirimiri Elkartearen, 19:30ean.

Larunbata, 23

Dantza

Landaberriko Antzerki Eskolak antolatutako VII. ANTZERKI Asteari hasiera emateko Dantza Garaikideko taldeek emandria eskainiko dute. Doan. Kulturetxean, 20:00etan



Pirinioetako hiru hizkuntzetako abestiak

IPARVENT FOLK TALDEAREN emanaldia Gazteria eta Festak saiak eta Xpressionk taldearen arteko hitzarmenaren barruan. Iparvent, iparraldeko haizea eusko-katalanez, "folk euskat" talde gisa definitzen du bere burua. Beraien lehen helburua, kantu tradizional horien ezagutaraztea, beraien hunkitze freskoa eta nota sortzailea emanez, iparraldeko haizeak mendietan egiten duen bezala.

Ostirala 22an, 20:00etan
KULTURETXEKO KAFETEGIAN
DOAN

Larunbata, 23

Djen emanaldia

ZIGOR DZ (Funk, Hip hop) Lasarte-Oriako DJak saioa eskainiko du Ttakuntronik zirkuariaren barruan. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan



Asteazkena, 27

Antzerkia

Landaberriko Antzerki Eskolak antolatutako VII. ANTZERKI Astearen DBHko taldeek *Inprobisaketak* eta *Camp Rock* lanak antzeztuko dituzte. Doan. Manuel Lekuona kultu-

retxean. Goizeko 10:15ean ikastetxeentzat eta 19:00etan gainontzekoentzat.

Ostirala, 29

Kontzertua

IRUNGO KABIGORRI ABESBATZAK kontzertua eskainiko du, Danok Kide elkarteak antolatutako IV. Musika Topaketaren barruan. Brigitarren komentuan, 20:00etan.

Ostirala, 29

Dantza

ZOO, PIZTI TRAJEDUNAK lan berria eskainiko du Ertza taldeak herriko haurrentzat, Lasarte-Oria dantzan 2009 ekimenaren barruan. Sarrera 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.



Larunbata, 30

Antzerkia

Landaberriko Antzerki Eskolak antolatutako VII. ANTZERKI Astearen helduen taldeek *Holako kontuk...* eta *komerik* eta *Etxe hauetan jakina da* lanak antzeztuko dituzte. Doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:30etan.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Greba deialdia

CNT-AIT sindikatutik kapitalismoaren kontrako grebara deitzen dugu maiatzaren 21ean. Mobilizazioak 10:00etan elkarretaratzea Lasarte-Oriako INEM aurrean eta 12:00etan Antiguoko INEM aurrean izango dira. Honetaz gain, pikete informatiboak ibiliko dira lantokietatik egun osoan zehar.

Zabaleta auzoko festak

Zabaleta Auzolanek jakin arazten du, ekainaren 2tik 7ra burutuko diren auzoko festak antolatzeko bilerak

egingo direla, ostegunero 19:30etan, Antonio Blas plazan.

Bidea itxita

Udalak jakinarazi nahi du Zabaleta Berriko urbanizazio lanak direla eta, gaur hasi eta uztailera arte Illarraltzueta bidea itxita egongo dela, Larrekoetxetik Villa Maria Luisara arte.

Frontoi eta paddle pistako lanak hasiko dira

Gaurtik aurrera, frontoi eta paddle pista berriak eraikitze-ko lanak hasiko dira udal

kiroldegia-oren ondoan. Hori dela eta, aipatutako egunetik aurrera ezin izango da autorik utzi orain arte behin-behineko aparkalekua zen eremuan.

Musika eskolako aurrematrikula

Irekita dago Udal Musika Eskolan aurrematrikula egiteko epea. Egin ahal izateko azken eguna maiatzaren 22a izango da. Interesa dutenek kulturetxera jo dezakete 09:00etatik 13:00etara bitartean; telefonoz ere egin dezakete 943 376181 zenbakian edo e-mailez helbide hone-

tan: kultura@lasarte-oria.org.

Korrika 16ko zozketako saridunak

Korrika 16-ko arropa erostea-gatik jasotako txartelen zozketan honako zenbaki hauek atera dira: 98657, 94136 eta 80766. Saria, aurtengo korrikako arropa sorta bat da.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atala. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariari. Horretarako aukerak: telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliz. Gure bulegora ekariaz (Geltoki kalea 4).

Ahokotasunari bultzada

■ Berrehun neska-mutil baino gehiagok hartuko du parte bihar ahokotasunaren jaialdian
■ Unai Muñoa arduratzen da ahokotasunaren inguruko baloreak ikasleei transmititzeaz

Lasarte-Orian bertsoan aritzen diren haurrek herritarren aurrean kantatuko dute bihar asteartea hilak 19 kultur etxean burutuko den ahokotasunaren jaialdian. Areto nagusian bi saio izango dira: 17:30tik 18:30ra bitartean, Sasoeta eta Landaberri, bi ikastetxetan aurten bertsoak egiten hasi direnak arituko dira eta 18:45tik 19:45ra bitartean, berriro ere bi eskoletako haurrak, bigarren urtez bertsoarritza ikasten ari diren taldeak, txandaka, igoko dira oholtzara. Beraz hasiberriek osatuko dute lehen orduko egitaraua eta atsedean baten ondoren bi urtetan bertsoa landu dutenen emanaldia izango da.

JON ALTUNA

250 neska mutil inguru izango dira bihar asteartea Kultur Etxean ahokotasunaren jaialdian. Landaberrin 5. eta 6. mailako zortzi talde ari dira Unai Muñoarekin bertsoarritza ikasten, Sasoetan 4. eta 5. mailako lau talde eta talde bakoitzean gutxi gorabehera 20 bat lagun dira. Bertso irakasleak adierazi digunez, "talde bakoitzak bertsoarekin lotutako 5-8 minutuko emanaldi bat prestatu du. Erabat beraien produkzioak dira, beraiek erabaki dute, zer egingo duten, zein bertso kantatuko dituzten,... ideiatik hasi eta bukaeraraino, ni beraien bidelaguna izan naiz".

Aurtengo emanaldian berrikuntzaren bat badagoela aitortu digu Muñoak: "Landaberriko bi taldek bertsoa bera erabili ordez bertsoaren baliabideak erabili dituzte, beraien gustuko kantak abestuko dituzte letrak aldatuta, euren egindako letrekin. Badaude bertso zaharrak kantatuko dituztenak ere, beraz, bertsoarritzaren oinarria uztartu dugu, iragana eta etorkizuna; nondik gatozen eta bertsoaren ibilbidea zein den ahaztu gabe, inolako konplexurik ez daukagu etorkizunera egokitze".

Unai Muñoak bost urte daramatza honetan lanean eta proiektuaren nondik norakoak eman dizkigu: "Gure lana ez da bakarrik hezkuntzaren barruan bertsoarritza ematea, baizik eta bailaran ekosistema oso bat sortzea. Guk hiruki bat iruditzen dugu bertsoarritzaren transmisioaren plan estrategikoan, eta hirukian ikusten dugu, hezkuntza arautuan egiten den lana batetik, eskola ordutegitik kanpoko bertso eskolak bestetik eta jarduera osagarriak azkenik. Hor sartzan dira aparte antolatzen diren topaketak, bertso eskolaren eguna, irteerak, txapelketak, saioak,... antolatzen diren ekintza ezberdinak. Guk nahi duguna zera da herri gutzietan hiruki hori bermatu hau da, hezkuntza arautua, bertso

eskolaren harrobi izango dena, bertso eskola bertsoarritzaren harrobi izango litzakeena eta jarduera osagarriak, ekosistema hori elikatzen eta bizirik mantentzen lagunduko luke tenak, guztiak bermatu. Horretarako irakasle bat daukagu bailara bakoitzean eta bere ardurapean garatzen da ekosistema hori. Urteetako proiektua da".

Helburu nagusiak

Proiektuak duen garrantzia nabarmendu eta urtearen balantze ona egin du Unai Muñoak. Bere iritziz, "oso inportantea da proiektuaren helburu nagusiak argi izatea. Batetik begi bistakoak direnak, alegia, bertsoarritzaren iraganaren ezagutza landu eta etorkizuna bermatzea, transmisioaren eraginez eta gero bertsoarritzak dituen baloreak baliatzea neska-mutilen heziketan. Ikusten dugu, batetik, ahoko jardunean trebatzen laguntzen duela bertsoarritzak, eta hori da gaur egun dugun hutsune handienetarikoa bat. Eta beste zenbait espas-



Unai Muñoa, Sasoetako Bertso Eskolako hamar kideetatik zortzirekin jolasean.

rru ere lantzen dira, irudimena, diskurtsoaren garapena, ideiak antolatu, tolestu eta komunikatiboki modu eraginkor batean planteatu, elkarri zerbaitek daukan garrantzia adierazten ikasi, aporteratzen jakin, hizkuntzarekin jolastu, euskararen alde ludikoa, poe-

sia, hizkuntza erabiltzen eta maneiatzen ikasi,..."

Bost urte lanean

Pozik dago Unai Muñoa egindako lanaz: "bost urte daramatzat elkartean, nirekin batera hasi zen proiektua Buruntzaldean eta batetik ikasleen harre-

ra izugarria izan da, oso ona, bertsoarritza gustatzen zaie, bertsoarritzan ondo pasatzen dute, beraientzako parentesi bat da eta bestetik aurrerapean nabarmenak direla ikusten dugu, hau da, ezer ez jakitetik denak iristen dira oinarri bat izatera; bigarren kurtsorearen amaieran badakite jada bertso bat goitik behera osatzen, modu egoki batean eta bere arauak errespetatuz; hainbat doinu erabiltzen dituzte. Emaitzak begi bistakoak dira. Hau, sorkuntzari begira dago antolatua, bertsoaren ezagutzari begira baino. Baliteke aurretik bertsoari buruzko nozioak jasotzea, hainbat informazio jakitea, baina gurekin hasten dira sorkuntzan". Eta irakasleak oso argi dauka aterako direla bertsoari berriak.

Gipuzkoako herri handietan ikastetxe gehienetan ematen da bertsoarritza. Herri txikiak oraindik egokitu gabe dago proiektua baina horretan ari dira. Bertsoarritza da ahokotasuna egitasmoaren Bertsozale elkarteak jarri zuen abian, duela 16 urte, lehenengo Bizkaian eta Iparraldera, Nafarroara, Gipuzkoara eta Arabara hedatu zen gero. Gipuzkoan 6-7 urte daramatza martxan, zortzi irakasle ari dira lanean eskualdeka banatuta eta zazpi mila ikasletik gora dituzte.

Helduen Bertso Eskolaren harrobia

Lasarte-Oriako helduen bertso eskolaren harrobia Landaberri eta Sasoetako ikasleak izango dira. Unai Muñoa bertsoari eta irakaslearen iritzi garrantzitsua da bertso eskolak jarraipena izatea eta etengabe bertsozale berriak taldera inguratzea. "Pis-kanaka landu behar da bertsoarritza, ez da bapatean sortzen den zerbait, bertso eskolak sortu behar dira, lan horretan gaude, baina denbora eskatuko du. Lasarte-Orian bertsoa oso presente dago, eta horren jarraipena bermatu behar dugu".

Elkartearen apustuak bat herri mailako bertso eskolak sortzea da. "Hori da gure helburu nagusia, baina orain pentsatzen dugu agian, errazago izan daitekeela eskoletan bertso eskolak sortu eta gero herri mailan fusio bat planteatu".

Momentuz Sasoeta ikaste-

txean martxan da bertso eskola eta Landaberrin ere sortuko dela uste du Muñoak. Sasoetakoan 10-12 urteko zazpi neska eta hiru mutil elkartzen dira asteazkeneko arratsaldeko 14:00 eta 15:00 artean. Neska-mutilak eurak euren borondatez eman dute bertso eskola sortzeko pausua. Eskolako orduetan ematen duten bertsoarritza ikasketaz gain, ordutegiz kanpo bertsoa lantzeko erabakia hartu dute eta bertso eskolan izena eman. Unai Muñoa irakaslearen ustez, "Bertsoarritzak berarekin dituen zenbait balore ikasle hauek bere egitea da nire helburua, hau da, esaterako irudimena, elkarriketarako, diskurtsoarako edo ikuspegi kritikoa garatzeko gaitasuna, bertsoari esker, transmititu nahi diet. Horretarako ez da aski urtebete, jarraipen bat beharko

luke eta espero dut Sasoetako bertso eskolak hurrengo urtean ere jarraituko duela, bertsoarritzaren oinarriak hartzen joan daitezen".

Momentuz bertsoarritza eta beste jarduera batzuek uztartzen saiatzen dira Sasoetan. Horrela emanaldiak egiten dituzte batzuek besteen aurrean, disziplina ezberdinak nahastuz. Horrela emanaldi guztietan daude bertsoak baina batzuek gimnasia erritmikoarekin batera nahastuko dute edo beste batzuek raparekin. Unai Muñoak adierazi digunez, bere lehen erronketako bat da bertso eskolak irauten duen garaian behintzat, gaztetxo hauek euskaraz aritu daitezela, normalean gaztekeraz aritzeko joera badute ere, euskaraz mintzatzeko ohitura hartu eta trebatuz joan daitezen.